

5. KANALAK

Luzkleta saltzeko 5 kanal desberdin aukeratu ditugu, helburua maila nazionalean bezero posible gehiagoetara iristea da, horregatik kanalak beraien artean guztiz desberdinak dira. Honako hauek dira:

- **Web gune** bat sortuko dugu eta bertan Luzkletari buruko informazio guztia agertuko da, gure produktuaren abantailak, nola erabiltzen den, ingurumenerako dituen onurak, erabiltzen ditugun materialak etb. Bertan produktua erosteko aukera emango dugu eta gurekin kontaktuan jartzeko informazioa, telefono zenbakia eta posta elektronikoa, gainera bezeroek gure produktuari buruz duten iritzia partekatu ahal izango dute.



- **Telebistan iragarkiak** jarriko ditugu, eguerdian eta arratsaldeko zortziretatik aurrera aterako da gehiagotan gure iragarkia, egiaztatuta dago ordu horietan iragarkiek erantzun hobeak dituztela, horrek ez du esan nahi gainontzeko orduetan ez dugunik iragarkia jarriko, baino gutxiagotan. Gainera audientzia gehien duten programen etenaldian jarriko dugu .



- **Egunkarian iragarki** motz bat jarriko dugu, hau da, iragarki oso bisuala, egiaztatuta dago egunkaria irakurten duten pertsona gehienek bakarrik izenburua irakurtzen dutela, eta izenburuak beraien arreta deitzen badu notizia irakurtzen dutela, beraz arreta deitzen duen iragarki bat jartzea erabaki dugu, irudi handi batekin eta izenburu deigarri batekin.

- Influencerekin lan egitea erabaki dugu, pertsona askoren arreta dutelako, **influencer** bakoitzak jarraitzaile desberdinak dauzka, igotzen duen edukiaren arabera, bera hainbat influecerrekin kolaboratuta, publiko handi batera iritsi gaitzeke, gainera influencerrak berak bere iritzia ematen du eta horrek laguntza handia ematen digu.





- Salmenta azalera handiak, **multinazionalak**, esaterako. Adibidez, Corte Ingles bezalako azalera handiekin kolaboratuko dugu, bertan salduko dugu gure produktua. Beraz, Corte Inglesean bertan gure produktuaren iragarkiak egongo dira, bezeroak edozein gauza erostera sartzen direnean gure iragarkia ikusi ahal izateko.